

Nola ulertu GASAREN FAKTURA



Ur beroa eta berogailua dira gasa;
eta faktura bihurri samarra izan daiteke batzuetan.

IDENTIFIKAZIO-BLOKEA

Konpainia bakoitzak bere fakturak ditu, bere erara eginak; baina oro har, datu hauek azaltzen dituzte: **kontsumitzailea identifikatzeko beharrezko datuak, tarifak, kontratuaren datuak eta abar.**

Datu guztiak ez dira nahitaez azaldu beharrekoak, eta zer azaldu eta zer ez, hori enpresa merkaturatzailearen gardentasunarekiko konpromisoaren arabera da.



FAKTURAREN DATUAK

- ◆ **Faktura-zenbakia.**
- ◆ **Erreferentzia.**
- ◆ **Fakturazio-aldia.** Tarte bat adierazten du, egun batetik bestera; gasaren kasuan, 2 hilabeteko tarte.
- ◆ **Fakturaren data.** Faktura noiz emango den.
- ◆ **Kobratzeko eguna.** Faktura noiz kobratuko den beranduenez, edo faktura kobratzeko eguna.



KONTRATUAREN DATUAK

- ◆◆ **Kontratuaren zenbakia.** Enpresa hornitzailearekin harremanetan jartzeko eta zure kontratua identifikatzeko balioko dizu.
- ◆◆ **Kontratuaren titularra.**
- ◆◆ **IFK/IFZ.**
- ◆◆ **Kontratututako tarifa:** bi aukera daude:
 - ▶ **Merkatu arautua Azken Aukerako Tarifa (AAT)** da. Tarifa horrek muga jartzen die enpresen marjinei, eta merkatu elektrikoaren bilakaeraren araberakoa izaten du prezioa.
 - ▶ **Merkatu librea.** Enpresa bakoitzak zehazten ditu bai bere tarifak bai prezio-planak.

Merkatu librean jarduten duten merkaturatzaileek ezin dute merkatu arautuan jardun.
- ◆◆ **Kontratua noiz bukatuko den.**
- ◆◆ **HPKB kodea** (hornidura-puntuaren kode unibertsala): etxebizitza identifikatzen du eta kontagailuak irakurtzeko balio du.
- ◆◆ **Eskura izateko bidesaria.** Gas-banatzaileari bere banaketa-sarea erabiltzeagatik ordaintzen zaion kostua da. Bidesari horietan sartuta datoz, alde batetik, MLBNra bideratutako zenbatekoa (% 0,140) eta, beste batetik, Sistemaren Kudeatzaile Teknikora bideratutakoa (% 0,797).
- ◆◆ **Horniduraren helbidea.** Zure etxebizitza, edo halakoa.
- ◆◆ **Kontagailuaren zenbakia.**
- ◆◆ **Enpresa banatzailea.** Enpresa banatzailea ez da fakturatzeko dizun enpresa, baina datu horrek lagun diezazuke. Gasa saltzen eta fakturatzeko dizun enpresa, enpresa merkaturatzailea da.

FAKTURAZIO-BLOKEA

Bloke honetan, fakturazioaren laburpena eta fakturaren xehetasunak adierazten dira

FAKTURAZIOAREN LABURPENA

Oso laburra izan daiteke, adibidez, **energia, zerbitzuak eta beste kontzeptu batzuk eta BEZa**, adierazten dituen, edo zehatzagoa:

- ◆ **Finkoa:** potentziaren kostu finkoa eta kontsumoa jasotzen ditu; datu horiek bereizita agertuko dira fakturaren xehetasunean. Kontsumoaren arabera egokitzen zaizu.
- ◆ **Aldakorra:** energiaren (gasa) prezioa eta energia-kontsumoa jasotzen ditu; datu horiek bereizita agertuko dira fakturaren xehetasunean.
- ◆ **Ekipoak alokatzea- Kontagailua.**
- ◆ **Zergak.**



FAKTURAREN XEHETASUNA

Termino finkoa

Etxean gasa edukitzeagatik ordaintzen da. Ordaindu egiten da beti, nahiz kontsumorik ez egon, eta prezioa kontratatutako eskura izateko tarifaren arabera izango da. Prezio hori urtebetekoa da.

- ▶ **RL 1**, gasezko berogailurik ez duen kontsumitzaile batentzat doitzen da (gehienez 5.000 Kw/urte).
- ▶ **RL.2** ur beroa eta gasezko berokuntza duen kontsumitzaileari egokitua (5.000 kw -15.000 kw bitarteko kontsumoa, urtean).
- ▶ **RL.3** ur beroa, eta gasezko berokuntza eta sukaldea duen kontsumitzaileari egokitua (15.000 Kw - 50.000 Kw bitarteko kontsumoa, urtean).



Energia terminoa edo aldagaia

Kontsumoaren arabera fakturatzen zaizuna. Kontsumoa eta gasaren prezioa biderkatuz kalkulatzen da.

- ▶ **Kontsumoa:** Kontsumitutako energia kantitatea da, eta kW/h-tan neurtzen da.
- ▶ **Gasaren prezioa:** Kontsumitutako kW/h bakoitzak zenbat balio dun, €/ kWh-tan neurtuta.

Urtean 50.000 Kwh baino gutxiago kontsumitzen duten kontsumitzaile guztiak eska dezakete azken aukerako tarifa. Etxe gehienek kontsumoa kopuru hori baino txikiagoa da.

- ▶ **Hidrokarburoen gaineko zerga.** Kontsumoari aplikatzen zaio.
- ▶ **Kontagailua alokatzea.**
- ▶ **Beste zerbitzu edo produktu batzuk.**

Zerbitzu gehigarriak dira, adibidez, etxea babesteko aseguruak, galdararen mantentze-lanak eta antzekoak.

KONTUZ KONPAINIA ALDATZEAN! Askotan, konpainiaz aldatzean, mantendu egiten da "Beste zerbitzu edo produktu batzuk" direlako kontratua. Ez ahaztu merkaturatzaileari berariaz jakinaraztea zerbitzu horietan ere baja eman nahi duzula.

INFORMAZIO-BLOKEA

Fakturak honako informazioa ere islatu behar du:

- ◆◆ Bezeroari **arreta emateko telefonoa**, doakoa.
- ◆◆ **Matxurak** jakinarazteko telefonoa.
- ◆◆ **Kontsumoaren historikoak**. Zure gaur egungo kontsumoak aurreko bi urteekin alderatzeko aukera ematen dizu.
- ◆◆ **Irakurketak eta kontsumoak**. Kontagailuen irakurketa adierazten du.
- ◆◆ **Hornidura-presioa eta bero-ahalmena bihurtzeko faktoreak**. Bereziki, sistemaren kudeatzaile teknikoaren webgunea, udal-mugarteari dagokion fakturazioaren BAG egiaztatzeko. BAG Bero Ahalmen Gehienezkoa da, eta gas baten errekuntzaz jasotako guztizko beroa adierazten du, dena aprobetxatu ez bada ere.
- ◆◆ **Hornidurari dagokion eskura izateko tarifa**.



Kontsumobiden informazio gehiago lor dezakezu

☎ 900 84 01 20